



Konexioak_Hazi
Deialdia | Convocatoria
2026-2027

ksigune

WWW.KSIGUNE.EUS

KSIgune gara.

Irudimenaren, ikerketaren eta sormenaren bitartez Euskadiko kultur eta sormen sektoreei aurrera eginarazten dien orori laguntzen diogu.

2026an, Artearen, Kulturaren eta Zientziaren arteko konexioari esker berrikuntza dakarten proiektuei bultzada handiagoa eman nahi diegu.


Horretarako, diziplina guztietako ikertaldeen eta kultura eta sormen sektoreetako enpresa edo profesionalen arteko lankidetzaz bultzatzen dugu.

Somos KSIgune.

Apoyamos a quienes imaginan, investigan y crean haciendo avanzar a los sectores culturales y creativos de Euskadi.

En 2026, queremos impulsar con mayor fuerza proyectos que innovan gracias a la conexión entre Arte, Cultura y Ciencia.

Para ello, apoyamos la colaboración entre grupos de investigación de todas las disciplinas y empresas o profesionales de los sectores culturales y creativos.



➤ Ezagutu Konexioak_Hazi

Deialdi honen bitartez, zuen lankidetzaren proiektua behar bezala garatzeko laguntza ekonomikoa lor dezakezue, eta beste aliantza batzuk lortzeko eta zuen ikerketa ezagutarazteko plataforma bat ere eskaintzen du.

Zuen ikerketa aplikatuko proiektua lagungarri izango da Euskadiko arteen eta kulturaren arloetako eta sormen sektoreetako enpresa eta profesional baten berrikuntza sustatzeko, baita sektoreko edo mundu mailako erronkei erantzuteko ere.

➤ Conoce Konexioak_Hazi

Esta convocatoria facilita el apoyo económico para el desarrollo adecuado de vuestro proyecto de colaboración, así como una plataforma para conseguir otras alianzas y divulgar vuestra investigación.

Vuestro proyecto de investigación aplicada contribuirá a impulsar la innovación de una empresa o profesional de las Artes, la Cultura y los sectores creativos en Euskadi, y responder a desafíos sectoriales o globales.



➤ Zuretzat da...

1/ Ikertzen baduzu

Zure Fakultateak, Unibertsitateak edo Goi Mailako Arte Irakaskuntzako Eskolak edo Eusko Jaurlaritzak onartutako ikertalde bateko kide bazara.

➤ Es para ti...

Si investigas

Formas parte de un grupo de investigación reconocido por tu Facultad, Universidad o Escuela de Enseñanzas Artísticas Superiores, o por Gobierno Vasco.

2/ Profesionala edo enpresa bazara

Zure jarduera nagusia kokatzen da Euskadiko sektore hauetako batean edo batzuetan:

Kultura:

- Arte Eszenikoak
- Ikusizko Arteak
- Ikus-entzunezkoak eta Multimedia
- Liburua eta Prentsa
- Musika
- Kultura Ondarea

Sormena:

- Arkitektura
- Artisautza
- Diseinua
- Gastronomía Sortzailea
- Hizkuntzaren Industriak
- Moda
- Publizitatea
- Bidejokoak

Si eres profesional o empresa

Tu actividad principal se enmarca en uno o varios de los siguientes sectores en Euskadi:

Cultura:

- Artes Escénicas
- Artes Visuales
- Audiovisual y Multimedia
- Libro y Prensa
- Música
- Patrimonio Cultural

Creatividad:

- Arquitectura
- Artesanía
- Diseño
- Gastronomía Creativa
- Industrias de la Lengua
- Moda
- Publicidad
- Videojuegos

➔ Zer proiektu motarekin parte har dezakezue?

Proiektu guztiek:

➔ Kooperatiboak izan behar dute

Gutxienez bi bazkide izan behar dituzte: ikertaldea eta enpresa/profesionala.

➔ Aplikazio zuzena izango dute

Enpresaren berrikuntzari lagundu behar diote, bere prozesu, produktu edo zerbitzuak hobetzen.

Emaitza balio akademikoa duen ikerlan bat izango da. Gainera, honako elementu hauetako bi, gutxienez, izan beharko ditu:

- Gomendio metodologikoak
- Prototipoa
- Dibulgazio-piezak
- Material pedagogikoa

➔ Uneko urtean egin beharko dira

Ikerketak 2026an hasi eta, beranduenez, 2027ko irailean amaitu behar du.

* Gainera, posible da beste laguntzaile batzuk izatea...

- Euskadiko elkarteak, enpresa edo profesionalen klusterrak eta kolektiboak.
- Euskadiko, Estatuko edo nazioarteko beste ikertalde edo ikastegi batzuk, proiektuak irismen handiagoa izan dezan.
- Nafarroako edo Akitania Berriko enpresa, profesional edo ikastegiak, Euroeskualde mailako lankidetzan aritzeko.

➔ ¿Con qué tipo de proyectos podéis participar?

Todos los proyectos deberán:

➔ Ser cooperativos

Contar con al menos dos entidades socias: el grupo de investigación y la empresa o profesional.

➔ Tener aplicación directa

Contribuir a la innovación en la empresa, mejorando sus procesos, productos o servicios.

El resultado será un trabajo de investigación con validez académica. Debe incluir, adicionalmente, al menos dos de los siguientes elementos:

- Recomendaciones metodológicas
- Prototipo
- Piezas de divulgación
- Material pedagógico

➔ Realizarse en el año en curso

La investigación deberá comenzar en 2026 y finalizar como máximo en septiembre de 2027.

* Además, es posible tener otras colaboradoras...

- Las asociaciones, clústeres de empresas o profesionales y colectivos de Euskadi.
- Otros grupos de investigación o centros de Euskadi, estatales o internacionales para lograr un mayor alcance del proyecto.
- Empresas, profesionales o centros de Navarra o Nueva Aquitania para trabajar en clave de cooperación Euroregional.

➔ Zer finantzaketa jasoko duzue?

Deialdi honetarako **80.000 euroko aurrekontua** dago eta gehienez **lau proiektu** finantzatuko dira.

Zeri egingo dio ekarpena laguntzak?

- Proiektua garatzen ari den ikertaldearen arduraldiari (aurrekontuaren % 40 gutxienez).
- Enpresatik proiektua koordinatuko duten pertsonen arduraldiari (aurrekontuaren % 30 gehienez).
- Proiektuaren garapenak eragindako gastuak ordaintzeari: joan-etorriak, materialak eta zerbitzu osagarri espezifikoak, baita zabalkunde gastuak ere.

* Kontuan izan...

- Enpresa bakoitzeko proiektu bakarra finantzatuko da.
- Finantzaketak hartu ahal izango du eskatutako guztizkoa edo ehuneko bat, lortutako puntuazioaren arabera.
- Konexioak_Hazi deialdiaren aurreko edizioetan aurkeztutako proiektuen ondoko faseei dagozkien eskaeren kasuan, aurrekontuaren % 80, gehienez, finantzatu ahal izango da.
- Enpresak izango du kudeaketa ekonomikoaren gaineko erantzukizuna, eta justifikatu egin beharko du.

➔ ¿Qué financiación recibiréis?

Esta convocatoria cuenta con un presupuesto de **80.000 euros**, y se financiarán un máximo de **cuatro proyectos**.

¿A qué contribuye esta ayuda?

- A la dedicación del grupo de investigación que desarrolla el proyecto (mínimo el 40 % del presupuesto).
- A la dedicación de las personas que coordinan el proyecto desde la empresa (máximo 30% del presupuesto).
- A cubrir gastos derivados del desarrollo del proyecto: desplazamientos, materiales y servicios específicos complementarios, incluyendo los de difusión.

✳ Para tener en cuenta...

- Se financiará un único proyecto por empresa.
- La financiación podrá corresponder al total o a un porcentaje solicitado, según la puntuación obtenida.
- Las solicitudes relativas a etapas posteriores de proyectos presentados en ediciones precedentes de Konexioak_Hazi serán financiables hasta un máximo del 80 % del presupuesto.
- La empresa será responsable de la gestión económica y la justificación.

Parte hartu

Hiru urrats soil dira:

1/ Proiektuko bazkideek jarraian adierazitako dokumentazioa bete behar duzue:

- Memoria teknikoa
- Kronograma
- Aurrekontua
- Ikertzaile nagusiaren edo zentroaren adostasuna

Fitxategiak deskargatu

2/ Ondoren, bete [online formularioa](#) eta erantsi aipatutako dokumentazioa.

3/ Zuen eskaera bidal dezakezu.

Participa

Son tres simples pasos:

1/ Las socias del proyecto debéis completar la documentación indicada a continuación:

- Memoria técnica
- Cronograma
- Presupuesto
- Conformidad de IP o Centro

Descargar archivos

2/ A continuación, completa el [formulario online](#) y adjunta la documentación mencionada.

3/ Ya puedes enviar vuestra solicitud.

DATA GARRANTZITSUAK | FECHAS IMPORTANTES



➤ Nola ebaluatuko dugu zure hautagaitza? ¿Cómo evaluaremos tu candidatura?

Zure proposamena diziiplina anitzeko batzorde batek ebaluatuko du, proiektuaren kalitatea eta garrantzia bermatzeko.

Kontuan izango dugu nola erantzuten diezun atal hauei:

➔ Ideiaren garrantzia eta kalitatea. Gehienez 40 puntu

Proiektuaren balio erantsia, berrikuntza maila eta ikerketa ildo berriak irekitzeko potentziala.

➔ Lankidetzaren kalitatea. Gehienez 20 puntu

Ezagutzen eta esperientziaren arteko hibridazioa, erantzun berritzaileak sortzeko.

➔ Proiektuaren garapena eta implementazioa. Gehienez 20 puntu

Helburuen, metodologiaren, aurrekontuaren eta inpaktu neurketaren arteko koherentzia.

➔ Konpromiso soziala. Gehienez 10 puntu

Desafio sozialei, teknologikoei, ekonomikoei eta ingurumen arlokoiei erantzuteko eginiko ekarpena.

➔ Komunikazioa eta zabalkundea. Gehienez 10 puntu

Emaitzak zabaltzeko proposamena.

Tu propuesta será evaluada por un comité multidisciplinar, para garantizar la calidad y relevancia del proyecto.

Tendremos en cuenta cómo respondes a los siguientes apartados:

➔ Relevancia y calidad de la idea. Hasta 40 puntos

Valor añadido del proyecto, grado de innovación y potencial para abrir nuevas líneas de investigación.

➔ Calidad de la colaboración. Hasta 20 puntos

Hibridación de conocimientos y experiencia para generar resultados innovadores.

➔ Desarrollo e implementación del proyecto. Hasta 20 puntos

Coherencia de objetivos, metodología, presupuesto y medición del impacto.

➔ Compromiso social. Hasta 10 puntos

Contribución para responder a retos sociales, tecnológicos, económicos o ambientales.

➔ Comunicación y difusión. Hasta 10 puntos

Propuesta para la difusión de resultados.

→ Proposamen arrakastatsu baten top 10

- 1** Ikerketa enpresaren negozioan edo jardun profesionalean zuzenean aplikatzekoa izango da, ohiko jardueratik edo ohiko azpikontratazio batetik haratago doan berrikuntza eraginkorra sortuta.
- 2** Proiektu taldea mistoa izango da: bazkide akademiko bat (ikertaldea) eta kultura eta sormen sektorean ibilbidea egina duen enpresa bazkide bat izango ditu, gutxienez.
- 3** Enpresa bazkidea pribatua izango da eta, partaidetza publikoa izanez gero, %50etik beherakoa izan beharko du.
- 4** Ideia original bat izango da, ez Konexioak programaren edizio honetan edo aurrekoetan aurkeztutako beste proiektu batzuen erreplika.
- 5** Berrikuntza prozesu, zerbitzu edo produktuetara bideratuko da. Ekoizpen artistikoa, egonaldiak edo ondarearen kontserbazioa testuinguruaren parte izan daitezke, baina ez azken emaitza, aplikatutako berrikuntzarik ez badago.
- 6** Aurrekontu orekatua aurkeztu behar da, argi eta garbi justifikatua eta entitate bazkide guztien ekarpena jasota.
- 7** Proiektuak plangintza argia izango du, hau da, helburu zehatzak, kronograma bideragarria eta ondo egituratutako lan metodologia, eta eskatutako entregagaiak kontuan hartuko ditu.
- 8** Proiektu taldeak ezarritako epeetan erantzungo die komunikazioei, KSIgunek adierazitako kanalaren bidez.
- 9** Eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu behar da, eta baldintza formalak eta ekonomikoak bete.
- 10** Proposamenak gutxienez 20 puntu lortu behar ditu garrantziaren eta kalitatearen atalean, eta gutxienez 65 puntu guztizko balorazioan.

→ El top 10 de una propuesta exitosa

- 1** La investigación se orientará a una aplicación directa en el negocio de la empresa o en la práctica profesional, generando una innovación efectiva que vaya más allá de su actividad ordinaria o de una subcontratación convencional.
- 2** El equipo de proyecto será mixto: contará, como mínimo, con una socia académica (grupo de investigación) y una socia empresarial del sector cultural y creativo con trayectoria consolidada.
- 3** La socia empresarial será privada y, en caso de contar con participación pública, esta será inferior al 50%.
- 4** La innovación se enfocará en procesos, servicios o productos. La producción artística, residencias o conservación patrimonial podrán formar parte del contexto, pero no constituir el resultado final si no existe innovación aplicada.
- 5** Se abordará como un proyecto interdisciplinar que articule el diálogo entre arte, cultura y ciencia.
- 6** Presentará un presupuesto equilibrado, claramente justificado y que reconozca la aportación de todas las entidades socias.
- 7** El proyecto contará con una planificación clara, incluyendo objetivos definidos, cronograma viable y una metodología de trabajo bien estructurada, y contemplará los entregables solicitados.
- 8** El equipo de proyecto responderá a las comunicaciones en los plazos establecidos y por el canal indicado por KSIgune.
- 9** Se aportará toda la documentación requerida cumpliendo los requisitos formales y económicos.
- 10** La propuesta obtendrá al menos 20 puntos en el apartado de relevancia y calidad, y un mínimo de 65 puntos en la valoración total.

➤ Zure proiektua hautatzen badugu, zer jakin behar duzu?

Honako hauek izango dira hurrengo urratsak:

- Bazkideei jakinarazpenak bidaliko dizkiegu, eta gure webgunean ofizialki iragarriko dugu.
- Proiektuaren bazkideek dokumentu bat sinatuko duzue, laguntza eta konpromisoak onartzen dituzuela adierazteko.
- Enpresak jasoko du proiektua kudeatzeko emandako laguntzaren %60.
- Bazkide akademikoak bere arduraldia aitortu eta bi aldeen arteko harremana jasotzen duen hitzarmena proposatuko du, eta proiektuko bazkideek sinatu egingo duzue.
- Proiektuaren jarraipenerako bilera indibidual bat egingo dugu, eta deialdiaren esparruan finantzatutako beste proiektuak ezagutuko dituzu.
- Proiektua amaitutakoan, hilabeteko epea izango duzue justifikazio tekniko eta ekonomiko eskatutako bidetik aurkezteko.
- Dokumentazioa baloratu, eta laguntzaren gainerako %40a ordainduko diogu enpresari.

➤ Si seleccionamos tu proyecto, ¿qué debes saber?

Así serán los siguientes pasos:

- Notificaremos a las socias del proyecto y lo anunciaremos oficialmente en nuestra web.
- Las socias del proyecto firmaréis el documento de aceptación de la ayuda y de los compromisos asumidos.
- La empresa recibirá el 60% de la ayuda concedida para su gestión.
- Las socias del proyecto firmaréis el convenio propuesto por la socia académica para reconocer su dedicación y recoger la relación entre ambas partes.
- Haremos una reunión de seguimiento individual de proyecto y socializarás con los demás proyectos financiados en el marco de la convocatoria.
- Tras la finalización del proyecto, tendréis un mes para presentar la justificación técnica y económica por la vía solicitada.
- Valoraremos la documentación, y abonaremos a la empresa el 40% restante de la ayuda.

A woman with long dark hair is speaking into a microphone. She is wearing a dark jacket. In the background, there is a banner with the text 'KONEXIO-TUAK'. To her right, another woman with long brown hair is sitting and listening. The scene is dimly lit, suggesting an indoor event or conference.

➔ Dena irakurri ostean, zalantzarik baduzu...

Zuri laguntzeko gaude. Idatzi ksigune@ksigune.eus helbidera.

➔ Y si después de haber leído todo, aún tienes dudas...

Estamos aquí para ayudarte. Escríbenos a ksigune@ksigune.eus.



Konexioak _Hazi

ksigune

WWW.KSIGUNE.EUS

© 2026 KSIGUNE. All rights reserved

Sustatzailea | Impulsa

euskampus
FUNDAZIOA

Laguntzailea | Apoya

